




Amalur Haur Eskola

ZERBITZUEN KARTA 22/24



AYUNTAMIENTO DE VILLAVA
ATARRABIAKO UDALA



Atarrabiako Amalur Haur Eskola udal zerbitzua da eta bi hizkuntza-eredu ditu, euskara eta gaztelania, 4 hilabetetik 3 urtera arteko haurrak eskolatzeko. Hezkuntza-jardueren bitartez haurren garapen integrala bultzatzen du inguru egokian. Zerbitzuen Kartaren bidez, azaldu nahi dugu zer zerbitzu ematen ditugun eta zer-nolako konpromisoak hartzen ditugun gure gain familien aurrean. Izan ere, familiekin elkarlanean aritzen gara haurrek dituzten eskubideekin eta gaitasun handiekin bat datorren hezkuntza-zerbitzua eskaintzeko asmoz.

Mikel Oteiza Iza
Atarrabiako Alkatea

AMALUR HAUR ESKOLAK ONDORENGO ZERBITZU HAUEK ESKAINTZEN DITU:

HAURRENTZAT:

- Hezkuntza integrala, prestakuntza eta titulu egokiak dituzten langile profesionalak baliatuz, haurren garapen fisiko, psikiko eta intelektuala sustatzen dutenak, betiere, euren beharretara egokitu.
- Adierazpen plastikoko tailerra, Arte Ederretan trebatua den adituak zuzendua. Honetan, modu librean esperimentaziorako aukera izanen da talde txikietan.
- Talde txikietan jolasteko proposamenak, aukera aberasgarriak eta anitzak eskaintzen dituztenak eta haurtxoen beharrei eta ahalmenei egokituak (mini-tailerrak, psikomotritzitatea, jolas heuristikoa, altxorren otarra...).
- Bertan egindako menuak eskaintzen dituen jantoki zerbitzua, elikadura osasungarri, orekatu eta askotarikoa, haurren adinera egokitu, garaian garaiko eta tokian tokiko produktu fresko eta ekologikoak zerbitzaturik, Nafarroako lehen sektoreak horniturik.
- Hormak gaintzen dituen eskola; eskola kalera atera, haurren bizipenak aberatsen dituzten irteerak (lorean landatzea, Atarrabiako Erraldoiak, Jubiloteka...) eta herria eskolan sartu, beste hezkuntza zentroyen bisitak, aiton-amonen festa...

FAMILIENTZAT:

- Eskola-familia hartu-eman lantzen dugu, eguneroko harremanen, elkarriketa pertsonalen, bileren, zuzendaritzaren informazio-gutunen, administrazio zerbitzuen eta informazioa emateko blog eguneratuaren bitartez.

ZERBITZU OSAGARRIAK:

- Ingurune kilikaria eta haurren beharrei egokitutako instalazioak.
- Heziketa-taldearen etengabeko formakuntza.

ESKAINTZEN DIREN KALITATE KONPROMISOAK:

- Ikasgela bakoitzean panelak eguneratuko dira, eginko aktibitateei, janari eta garbitasun informazio datuei eta adierazpen plastikoko tailer-saioei dagokionez.
- Janariaren panelean eskaintzen diren menuen, osagarrien eta prestatze prozesuaren informazioa egunero emanen da.
- Ohiko menua egokitu egingen zaie elikadura-behar bereziak dituztela behar bezala egiaztatzen duten haurren % 100i.
- Hiru hilean behin eskolaren informazioa eguneratuko da interneten.
- Aurre-izenemate garaia baino lehen ate irekiko jardunaldia deituko da.
- Lehen aldiz matrikulatzen diren haurren familiei ohi kanpoko bi elkarriketa pertsonal egingen zaizkie.
- Ikasturte hasieran eta amaieran elkarriketa bana egingen zaizkio familia bakoitzari.
- Gutxienez bi gela bilera egingen dira familiekin.
- Ikasturte amaieran seme-alabaren irudiak biltzen dituen txostena egin eta emanen zaie familiei.
- Jasotako kexa eta iradokizun guztiek izanen dute erantzuna, gehienez ere 15 egun naturaleko epean.
- Adin talde bakoitzeko hezitzaile kopurua, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren indarreko legediaren arabera ezarritako ratioa baino altuagoa izanen da.
- Eskolako heziketa taldearen egutegiaren barnean, batez beste 15 ordu ezarriko dira lanpostuko eta ikasturteko, bere lanpostuarekin zerikusia duten gaietan formakuntza jasotzeko eta birziklatzeko.
- Familien asebetetze mailak, batzbestek 10etik 8ko puntuazioa gaitutako du.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

- Pertsona erabiltzailearen bat alderdi bako batean ere asebetzerik ez bada geratu, gonbidapena luzatzen diogu gabeziak zuzentzeko edota zerbitzuak hobetzeko laguntza eman ahal duten proposamenak egin ditzan. Proposamenak www.villava.es polara bertara joanda, www.atarrabia.es web orrian eta amalur@villava.es helbide elektronikoa egin ahalko dira.
- Urtero, pertsona erabiltzaileen iritzia jasoko dugu ((gurasoak edo legezko tutoreak) inkesten bidez, ematen ditugun zerbitzuen kalitatearen eta gure konpromisoen asebetetze maila ezagutze aldera.

KONPROMISOAK BETE IZANAREN JAKINARAZPENA

- Konpromisoa hartzen dugu, urtero herritarrei informazioa emateko, Udalaren Informazio Aldizkariaren bitartez eta Udalaren web orrian, gure konpromisoen betetze mailaren gainean.

ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK ETA LEGEDIA APLIKAGARRIA

- Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak, eta halaber, honen inguruko legedi aplikagarria Amalur Haur Eskolan eta Udalaren web orrian kontsultatu ahalko da.

KALITATE ADIERAZLEAK

- Panelak eguneratu gabeko egun kopurua 15 baino gutxiago izanen da ikasturteko.
- Janari panela ez eguneratzeagatik egongo diren kexuak ez dira ikasturtean 5 baino gehiago izango.
- Kasu justifikatuetan prestatuko ez diren menu berezien kopurua 0 izanen da.
- Eskolaren hiru hileroko informazioaren eguneratze kopurua.
- Ate irekiko jardunaldien deialdi kopurua.
- Zenbat elkarriketa / zenbat matrikula berri.
- Elkarriketa norbanakoen deialdi kopurua eta egindako gela bilera kopurua/haur kopuruko.
- Emandako irudi eta dokumentu artxiboen kopurua / Haur kopurua.
- 15 egun naturaleko epean edota lehenago erantzundako kexen eta iradokizunen portzentajea.
- Hezitzaile kopurua adin talde bakoitzeko/haur kopuruko.
- Egindako formakuntza ordu kopuru batz bestekoa.
- Familiek asebetetze inkestan emandako puntuazioa.

INDARRA HARTUKO DUEN EGUNA


2022ko abuztua. Indarraldia: 2 urte.

NON GAUDE?

Ezkaba kalea 6 • 31610 - Atarrabia (Nafarroa) • Telefonoak: 948 012 012 / 012
Helbide elektronikoa: amalur@villava.es • Web orria:
<https://www.villava.es/eu/udala/zerbitzuak/amalur-haur-eskola/>

Ordutegia

Astelehenetik ostiralera: 7:30-16:00.
Jendearendako arreta: astelehenetik ostiralera, 8:00-13:00.



JENDEA HARTZEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera,
08:00etatik 13:00etara.

Nola iritsi

Eta garraio bideak:
Autobus lineak 4 eta 7